

## KONTROL MOZIOA

### **INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO UDAKO KANPAINA DELA ETA**

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko uztailaren 10ean Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Indarkeria sexista emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik ezaren ondorio larrietako bat da. Aurrerapausoak eman diren arren, oraindik ere ez gara benetako berdintasunera iritsi, eta indarkeria sexista, hain zuzen ere, berdintasunik ezaren adierazpenetako bat da. Egunero ikusten ditugu albistegietan, gertu eta urrun, eta bereziki, festetan, kasu berriei, hilketei, bortxaketei, erasoei, jazarpenari eta abarri buruzko berriak.

Zalantzarik ez dago, indarkeria matxista desagerrarazi ahal izateko, erantzun bateratua eta estrukturala behar dela; izan ere, indarkeriaren arazoa konplexua denez, erantzun osoa behar du erakundeetatik, eragile sozialetatik eta azken batean, jendarte osoaren aldetik. Eta administrazioaren lana da hori guztia ahalbidetzea

Donostiako Udalak urte asko daramatza indarkeria matxistaren kontrako kanpainak sendotzen eta zabaltzen. Urte osoan, eta bereziki, uda garaian. Kanpaina uda hasieran aurkeztu eta Euskal Jaierara zabaltzeko ahalegina egin da. Sortu diren euskarriei ahalik eta etekin handiena ateraz eta indarkeria sexistaren kontrako berrespena ahalik eta toki gehienetan ikusaraziz. Aldiz, azken urteetan, indarkeria matxistaren kontrako kanpainak gero eta beranduago aurkezten ari dira, eragileek gero eta parte hartze txikiagoa dute eta ondorioz, eragin eta sentsibilizatorako indarra galtzen ari da.

Ez da lehen aldia Udal Gobernuak, indarkeria matxistaren kontrako sentsibilizazio kanpainetan duen ardura eskasarengatik, interpelatu behar izan dugula eta jarrera aldaketarik ez dago.

2017ko uztailaren 14an gaude eta Udal Gobernuak udako kanpaina aurkeztu gabe jarraitzen du.

Eta gogorarazi behar dugu 2016an sexu askatasunaren aurkako delituak % 9.3 igo zirela Donostian.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

## KONTROL MOZIOA

- 1.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari indarkeria matxistaren kontrako udako kanpainak eta ekimenak lehentasunezkoak izan daitezela haren agendan.
- 2.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari indarkeria matxistaren kontrako udako kanpaina ahalik eta azkarren Udalbatza osatzen dugun taldeekin eta hiriko eragileekin batera aurkez dezala.
- 3.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2018ko udako kanpaina ekainean, udako denboraldiarekin batera, aurkez dezala eta Udalbatza osatzen dugun taldeen eta hiriko eragileen parte hartzea ere berma dezala bertan.

Donostian, 2017ko uztailaren 14an

Naiara Sampedro Perez  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**